

## Ixilpeko idazleak URSS-en (Naoum Odnopozov)

*Zeruko Argia*, 363. zk., 1970-02-15: 5.

"1965-go irailak 17; zibilbez jantzitako bi gizon etorri dira etxera, ta Volga beltz batean eraman naute sobietikoen ertzain-izkutukoak Rigan dute etxe-nagusira. Ni behar ninduten, noski, jakin berria baizuten gizon peligraso bat nintzala: ixilpeko idazlea.

"Ba dakit ni ez nintzala Lenin eta Engels kale-ixkiñan dagoan barroko tankerako etxe batera eraman zuten lenengo idazlea izan, ta ez da azkenekoa ere izango. Ala ere, onera ekarritakoak baiño gehiago izan dira Moskuko Lubianka ta Leningradoko Gorokhovaiatik pasa diranak eta gero katigu-lanetara eta Siberiko aintziretara edo sikiatri-gaisotetara eramaten dituztenak.

"Gure beldurra dutelako inguratzen eta ehizatzen gaituzte. Artistak (askatasuna behar duan gizona) ertzaiña (ordena behar duana) ikaratzten du.

Baiña gobernu totalitario bateko ertzaiñak oso era bereziki ta izugarriko bildurra sentitzen du. Bere munduan, Estaduan, Aberrian (bearentzat izen ohiek balioberdiñekoak dira), dan-dana ondo eratua, planifikatua, izan behar du, ta goi-goitik ematen diran asmoekin zuzenki asmatua. Goiko Arrazoi santu hau *ideologia* da, oraingo jaungoiko berri bat, eta ertzaiñarentzat eta bere babesean bizi diranentzat, pakea ta mundo onetako gauz on guziak ekartzen dizkion erakundea.

"Gizon totalitario batek ez du askatasunean izan liteken legerik ezagutzen. Bere irakatsia izan danez: goitik berako jainko-lege zorretaz, edo bestela nahaspilla, kaosa; beste aukerarik ez.

"Baiña Rusian non nai ari dira gauza berriak agertzen: ekonomian, artisten lan berrietan. Eta apurka-apurka jaungoikozko planifikazioari ta Komunista Alderdiari ta Ertzain-izkutuari iges egiten ari zaie agintea. Eta nahastearen beldurrak izaten asiak dira. Ta 'nahaste' onek ez dio erriari kalterik egingo, komunisten etorkizunari baizik. Berak ondo ulertzen dute, bai, ba dirala teknika berriak ezagutzen dituzten sobietiko intelektualak, eta beroiek orain dituzten lan-tokiak, eta askoz ere profesionalbide obeekin, beren tokia ondo aski artuko lutekela.

"Mendebalean uste duten baiño jende gehiago ari dira espetxeratzen Rusian. Langille asko sartu dituzte kartzelan, baiña totalitarioak batez ere sortzaileri dio beldurra, intelektualei bereziki. Agintariak ba dakite erresistentziko olerkariak eta artistak erri osoan eragite aundirik ez dutela, baiña bai, ta asko, sendagille, kimiko ta injenieroen artean, erriko burua dagoen tokian.

"Ixilpeko mugi-aldi hau orain dala amabi urte asia da, ta orduan agintariak konturatu ziran oraindik beñere gertatu ez zan zerbait ari zala gertatzen; bere Plan orretan ez zegoan zerbait. Buru direnak beldur izan dira eurak ain ondo eratua daukaten erakunde hau goitik bera amilkatuko ote zaioten. Ara zergatik txakur amorratuak bezala gure atzetik datozen. Eta ara zergatik Moskun orain ezarri diran zigorrak ain aundiak izan diran.

"Zuk tradizioa aukeratzen ba dezu, zure bideak *ezkerrera* eramango zaitu, batzuetan ixilpeko-*ezkerrera* (Rusian, beste tokietan bezala, *ezkerra* aldakuntzaren alde dago; *komunistak, beraz, eskuian dagoz*).

"Bizimoduak eta esperientziak erakutsi digu ondo erreboluzioaren eta marxismoaren itz-emanetik betetzera zenbat alde dagon; izilleko ta eguneroko gertaerak ere horixe erakusten digute. Amalau urterekin asi zan noretzat esperientzi hau. Ikastolan erakusten ziguten Lege-nausiak hauxe ziola: 'zuek autezkunde libreak izango dituzute', eta ez degu izan; eta 'zuek itz egiteko askatasuna izango dezute', ta ez degu izan. Orregatixe da guetako gertuenak bizimoduari diogun deskonfiantza; ta onek ixilpera ta erresistentziara garama.

"Gauza asko ditugu borrokazaleak elkarrekin: guk nahi dugu, lehen, eta batez ere, pentsatseko ta esateko askatasuna. Ba dakigu ziur-eta (guk egin degun bizimoduak erakutsi digu hori ondo aski) askatasun hori falta ba da, goi-mallako pentsa-bidea ta baita erriko pentsabide xehea ere, faltseatzen dala.

"Ala ari gera gaurko ta berezko bikote berria sortzen: *egia ba lira bezelaxe* esaten dira *gezurra direla dakigun gauzak*. Alaxe ohituera orrek gure nerbioak gaixotu dizkigu.

"Ixilpean bizi diranak ez dute askotan ardura gutxiko erresponsabilidaderik ere artu nahi; bai baitakite gauz txikietatik asita nora eraman dituan batzu-batzuek.

"Ixilpeko mugi-aldi hau gizarte ta ekonomi gaiak kezkatuta dago gehien, euren kezka nagusiari, kulturaren askatasunari, kaltegarri diralako.

"Mugi-aldi onen muiña 25-40 urte-tarteko intelektualak osatzen dute. Batzuek artista ta idazleak izan lezaken ondore onenak jasotzeko garaian daude. ixilpeko olerkari aundiena, gaur Rusian dan idazlerik onena izango da: Joseph Brodski, ta Arkanjelsko erri txiki batean erbesteratua egon eta gero itzuli danean poesia-itzulpenak egiten ari da bizia irabazteko. Ixilpeko mugi-aldi onetan dauden gehienak irakasleak, sendagilleak eta ingenieroak dira.

"Ixilpeko literatura onek irakurle asko ditu, baiña irakur-gai hoiak arkitzeko Gutenberg aurreko bideak ibili behar dira. ixilpeko batzarrak kafetan eta ikastoletan egiten dira.

"Batzuentzat 30 urtetik gorako askatasun-eskaleak gogorregiak dira; hoientzat gauzak mantxoago aldatu behar lirake; baiña danak izututa daude 25 urte baiño gutxiago dituzten gazteen ausardiarekin".